

Ezkio-Itsaso. Igartubeiti Baserri Museoa “Herri kirolen maratoian parte hartzeko aukera larunbatean museoan”

Saskigintza, abarkak, filmak, mozorroak... Orain arte tailer desberdinak ospatu dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan, eta hurrengo familiei zuzendutako herri kirolen maratoia izango da. Besteetan bezala larunbatean izango da herri kirolen maratoia, eta arratsaldean zehar honetan parte hartzeko aukera egongo da Igartubeitiko interpretazio zentruan.

Tailer batzuk besteak baino arrakasta gehiago izaten dute, baina oraingo honetan, eta eguraldiak laguntzen badu, tailer polit batean parte hartzeko aukera izango dute umeei, gainera kirola egiten eta ezin hobeto pasatuko dutelarik.

Familia osorentzat

Museoak antolatzen dituen ekintzen artean familientzako tailer didaktikoak ditugu, eta hauetan leku guztietako gazte eta familiek parte hartu dezakete. Baserriaren munduaren inguruan kokatzen dira beti gaiak, eta jolastuz edo eskulan desberdinak eginez, gure arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko aukera zabaltzen die gazte eta helduei. Beraz, bihar arratsaldeko 4etan hasiko da maratoia eta bertan parte hartu nahi duten guztiek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, bai Igartubeiti baserri museoan bertan; baita 943 72 29 78 telefono zenbakian; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoaren web orrian.